

# Argo filmaren lizentzia poetikoak

DGGOSTUDIOS.COM



*Argo* (2012) filmak Irango bahituen krisia kontatzen du. Irudian, *Argoren* zuzendari eta aktore Ben Affleck eszena batean. BBCk gertakizun haietako protagonistetako bat elkarriketatu du, Mark Lijek, filmaren errealismoa aztertzeko.

TEHERAN (IRAN), 1979KO AZAROAREN 4A. 500 bat ikasle islamistak AEBetako enbaxada inguratu eta hartu zuten, Ruhollah Jomeini aiatolah berriak AEB eta Israelen aurka egindako deiari erantzunez. 66 herritar estatubatuar bahitu zituzten –sei ihes egitea lortu zuten– eta, horrenbestez, 444 egun iraungo zuen Irango bahituen krisia hasi zen. Sari mordoa jasotzen ari den *Argo* filmak gertakizun hori du hizpide, enbaxadatik ihes egitea lortu zuten sei lagunak bizipenak bereziki. Sei horietako bat Mark Lijek izan zen eta BBC kateak filmari buruz galdetu berri dio elkarriketata batean.

Filmaren arabera, Mark eta Cora Lijek, Bob Anders, Schatz Lee eta Joe eta Kathy Stafford Kanadako enbaxadore Ken Taylorren etxean ezkutatzera eta elkarrekin bizitzera behartu zituzten. Baina benetan seikotea bi etxetan banatu zuten (batzuk Taylorren etxean, besteak John Shardown funtzionarioaren etxean). “Filmean, talde dinamika horrek tentsioa areagotzen du, tirabirak eragiten ditu, dramatismoa handitzen du” dio Lijek, ulerkor, baina ironia ukitu batekin. “Ez da egia etxetik ateratzea debekatuta genuela; Shardownen etxeko lorategian lasai ibiltzen ginen. Baina egia da ezer gutxi

genuela egiteko. Irakurtzen eta Scrabblean ematen genituen orduak. Eta edaten”.

Filmean ageri denez, CIAk plan bat pentsatu zuen sei estatubatuarrek hegaldi erregular batean Iranetik atera ahal izateko: zientzia fikziozko film batean lanean ari ziren zinegile kanadarraren itxurak egingo zituzten. Filmeke elementurik sinesgaitzetakoa izanagatik, CIAren plana egiazkoa izan zen. Hala ere, Hollywoodeko ekoizpenean ez bezala, errealitatean plana ez zen sekula martxan jarri. “Baina adorea, konfidantza eman zigun, aireportuan galdeketa zorrotza egiten baziguten zer erantzun ederki ikasi genuelako”.

Eta halakorik ere ez zen izan: goizaldeko 5:30ean, irandar indar iraultzaileek ez zioten seikoteari ia eragozpenik jarri dokumentazio faltsua eskuetan hegazkina hartzeko, *Argo*n pertsekuzio eta estutasun eszena zirraragarriak ikusten diren arren. “Oso guardia gutxi zeuden goizeko ordu txikietan, iraultzaile engaiatuenari ere ez baitzaio hain goiz jaikitzea gustatzen. Paper faltsuak ziren gure ahulgune nagusia, baina ez zieten ia jaramonik egin”, Mark Lijeken hitzetan.

Eta horrek guztiak, egiak alegia, ez du ematen sari asko jaso nahi dituen film baterako. ■



## Arrastoak

### Munduko lehen DJa



RON DIGGINS izeneko irrati ingeniari britainiar batek lehen nahasketa mahaitzat jotzen dena asmatu zuen 1945an. Etxean egin zuen bi biragailuz, argiz, mikrofonoz, amplifikagailu batez eta hamar bozgorailuz osatuta. Egurrezko oinarria egiteko, hilkutxa batez baliatu zen. Digginsen Diggola izena jarri zion mahaiari.

1947an estreinatu zuen tramankulua eta 50 urtez aritu zen disko-jar-tzaile lanetan, 20.000 festa baino gehiagotan, hasieran, egile eskubideak zirela eta, musikagile asko aurka izan arren. Digginsen berak zioen ez zuela ezertxo ere asmatu, beste batzuek asmatutakoari beste erabilera batzuk eman baizik. ■